

ETArena izan daitekeen armategia aurkitu zuten Bedian joan zen astean

Mendizale batzuek ikusi zuten eta Ertzaintzari eman zioten abisu

Ustez ETako 'Bizkaia' komandoak jaso behar zuen armategia aurkitu dute pasa den astean Bediako inguruko basoetan, Bilbotik hamabost bat kilometrotara. EAEko Barne Sailak «garrantzitsutzat» jo du Ertzaintzak atzemandakoa.

BILBO

Aurkikuntza joan zen astean izan zen, eta egun batzuetan Ertzaintzak ingurua zaindu zuen, komandoko kideak armen bila zihoazenean atxilotzeko asmotan. Halere, azkenean ez zen halakorik gertatu, atzo Eusko Jaurlaritzako iturriek aditzera eman zuten.

Barne Saileko arduradunen eritzian, «atzemate honekin, azken hilabeteetan hainbat ekintza burutu izana leporatzen zaion ETako talde honen ekintzak oztopatu egin dira».

Eusko Jaurlaritzak ohar baten bidez adierazi zuenez, armategia Bediako Leixarreta auzoan aurkitu zen, «inguru horretan 'zulo' bat zegoela konturatu ziren mendizale talde baten salaketari esker».

Atxilotarik ekarri ez duen ekintza honetan atzeman den materiala mendian pilatuta zegoen, eta hostoz estalia. Beronen norakoa berriz, «'Bizkaia' komandoa hornitzeko» zen, eta bertako partaideek jaso behar zuten, iturri berberen eritzian.



Ertzaintzak erakutsi zuen Bedian aurkitutako materialeak.

EFE

«Biltzeko erabilitako modua eta armategia gordeta zegoen kartoizko kuxkak zeuden lekuak —esaten du oharra—, materiala berriki jarri eta gaur egungo Bizkaia komandoko partaideak hornitzeko helburua zuen tesia baieztatzen du».

MATERIAL UGARI ATZEMANDAKOA

Amosal kilo bana zuten 150 plastikozko poltsa, eta leherkari gehiago, munizioa, metxa eta lehergailuak egiteko bitarteko elektronikoak gordetzen

zizuten kartoizko kuxkak osatzen zuten aurkitutako armategia.

Material paketeek leherkariak, munizioak, detonadoreak edo pizteko tresnak, aparailu elektronikoak eta agiri batzuk zeuzkaten barruan.

150 kilo amosalez gain, ustez 'Bizkaia' komandoari zuzendutako armategiak lau pastila TNT, oxigeno gogortuaren lau pakete, bi kilo polbora, polbora suemaile kilo bat, bi kilo goma-2, leherkari berdineko zortzi kartutxo, CETMERako bi granada, mikroatzerapeneko sei deto-

✓ Aurkikuntza joan zen astean izan zen, eta egun batzutan Ertzaintzak ingurua zaindu zuen.

Amosal kilo bana zuten 150 plastikozko poltsa, eta leherkari gehiago, munizioa, metxa eta lehergailuak egiteko bitarteko elektronikoak aurkitu zituzten.

nadore, pirotekniako bederatzi detonadore, 'pendulo' motako lau gailu, zortzi tenporizadore eta pizteko lau mekanismo biltzen zituen.

Material elektronikoari dagokionean, 'scanner' bat, urruneko gailudun emisorea, hiru jasogailu, bakoitza tenporizadore bati lotua, eta irratiko frekuentzia zerrenda bat zegoen. Gailu guztiak zenbakituta zeuden, komandoko partaideek montatzeko aginduak erraz uler zitzaten.

Ertzaintzak atzemandako materialean, gainera, kotxeak irekitzeko bi ginbalet, bi destorniladore, ganzua bat, ibilgailuko giltza bat, bost torloju, 'jotake' granadetarako bost aseguru, lau errodamendu bola eta hogeitasei iman zeuden.

Madrileko oposizioa azpiegiturei buruzko mozioaren alde agertu da

BILBO

EAJk Espainiako Legebiltzarrean Ardatz Atlantikoko azpiegiturei buruz aurkeztu duen mozioak, oposizioko alderdi guztien onspena du, atzo Eduardo Vallejo diputatu jeltxiak adierazi zuenez. Lehengo astean aurkeztutako mozio honetan «ardatz atlantikoa osatzen duten elkarrekin behar dituzten trenbide, portu, aireportu eta errepede azpiegituren artean desorekarik ez egotea» eskatzen da.

Vallejok, EAJk kaleratutako agiri baten bidez, adierazi zuen PSOEk Borrellen politikaren «segidismoa» egiteagatik, «sozialistak ere dauden komunitate batzuen interesen aurka doala: Cantabria, Asturias, Galizia, La Rioja, Nafarroa eta Castilla-Leon». Ministrariak egindako kritika «Euskadiz bakarrik arduratzea» errefusatu zuen Vallejok, «Euskadi bidegurutze bat denez, inguruaren abstrakzio» egiten ez dela argudiatuz.

Euskal Talde parlamentariak aurkeztu duen mozioan Kantauriko autobidearen eraikuntza, Galizia Portugalekin lotzea eskatzen eta baita Asturias eta Cantabria Madrilekin.

Honetaz gain ere eskatzen dira euskal 'Y-aren' proiektuaren hasiera, Kantaurialdeko trenbide egituren hobetzea, autonomi elkarrekin aireportuen administrazioan sartzeari, Kantauriko portuak transferituak izatea eta azpiegituren defizitari buruz ikerketa bat egitea.

HARROKERIA MAILA POLITIKOA

Jose Manuel Barquero Partidu Popularreko diputatuak atzo Bilbon adierazi zuenez, Borrell Espainiako Lan Publiko eta Garraioetako ministroak EAEko inbertsioen aplazamenduarekin «harrokeria politikora eraman du». Barquerok Borrellen lehengo astean egindako adierazpenak gaitzetsi zituen, «eskualdeek Europar izan behar duten papera eztabaidatzen ari denean», ministroak, bere esanetan, inposizioaren politika aurrera eramaten ari delako.

Jose Manuel Barquero, Alderdi Popularreko diputatuaren eritziz Madrileko gobernuak «ez du inolako interesik Euskal Herria eta Ardatz Atlantikoa garatzeko», PSOEk autonomi elkarrekin eta eskualdeek azpiegituretan parte hartzea «ekiditzen bait du».

Amedo kasuko galdera guztiak onar ditzaten errekurtsioa egin dute

MADRIL

Amedo kasuko herri akusazioak erreguzko errekurtsioa aurkeztu zuen atzo Madrileko Auzitegi Nazionalan, Felipe Gonzalez egin zaizkion galdera guztiak erantzun ditzan eskatzu.

Auzitegi Nazionalak hilak 8 errefusatu zituen herri akusazioak egindako hogeitasei galderetik hogeitabi errefusatu egin zituen, «inpertinenteak» zirela eta ekainean epaituko diren ekintzekin zerikusirik ez dutela esanez. Auzitegiak, halaber, Jose Luis Corcuera Espainiako Barne ministroari zuzendutako beste lau galdera gaitzetsi zituen.

Herri akusazioak erreguzko errekurtsioan dioenez, ordea, galdera guztiak GAL erakundearen ekintzekin lotuta daude. Auzitegiak errefusatu zituen galderen xedea, idatziaren arabera, «Exekutiboak GAL kideen ekintzen berri izan zuen, gertatu aurretik edo gertatu ondoren, ikertzea da». Horrekin batera, herri akusazioak GAL kideen ekintzen aurrean

Exekutiboak ekimenik hartu zuen ala ez eta bere jokabidearen ondorioak ezagutu nahi ditu.

Fernando Salas eta Jose Luis Galan abokatuak errekurtsioan gogorazten dutenez, auzian ez dira Jose Amedo eta Michel Dominguez poliziei leporatutako ekintzak bakarrik epaitzen, «prosezua talde armatuko kide izateagatik eta Estatuko Administrazioaren kontra ere bada».

Administrazioa ere akusatuen eserlekuan dagoenez, herri akusazioak beharrezkotzat jotzen du sakon ikertzea «GALKideen finantzazioa eta antolamendu tramak, eta Amedo eta Dominguez euren departamentuan eta Administrazioan oro har izan zitzaketeen laguntzak». Idatzian Barne ministroari egindako galderak «lekuz kanpokoak» direnik ukatu egiten da eta auto batek Gonzalez eta Corcuera egindako galdera guztiak bidezko jo ditzaan eskatzen da. Errekurtsioa ez onartuz gero, kasazioari dago-kionez «protestaldia egintzat jo dezaketela» diote abokatuak.

Sebastian Azpiri hiltzeaz akusatuta epaitu dituzte Balerdi eta Ziganda

MADRIL

Espainiako Entzutegi Nazionalak 'Eibar' komandoko Juan Carlos Balerdi eta Jesus Maria Ziganda Salas epaitu zuten atzo, 1988.ean ustez Sebastian Aizpiri, erakunde armatuak droga trafikoarekin lotzen zutena, hiltzeagatik. Fiskalak 60 urteko gartzela zigorra eskatu du biezat.

Bi epaituek ez zuten epaitegi onetsi eta epaileari baimena eskatu ondoren, joan egin ziren. Epaileak guztira 20 minutuko iraupena izan zuen.

Fiskalak egindako salaketaren arabera, bi epaituek Sebastian Aizpiri 'Txaltxa' jatetxeko ugazaba hiltzen, bertan droga saltzen zuelakoan.

Ministeritza publikoaren esanetan, ezagutzen ez den pertsona batek 'Eibar' komandoko bi kideei Aizpiriren ohiturei eta ordutegiari buruzko informazioa eman zien.

Juan Carlos Etxenike 'Lurraldearen' sortzaileetako bat hil zen atzo

DONOSTIA

Juan Carlos Etxenike, 1979-1987 tartean Billabonako alkate eta 'Lurraldearen' koordinakundearen sortzaileetako bat izan zena hil zen atzo, tronbosiak jota.

Hain zuzen ere 'Lurraldearen' atzo igorritako ohar batean «peregabeko gizontzat» jo zuen Etxenike, 1986ko apirilean koordinakundea sortu zenean «mugimendu sozialaren kolaboratzaile ohoretsua» izan dela ziurtatuz.

Oharra dioenez, kazetariren baten autobidearen inguruko jarraiz galdetzen zionean Etxenikek «legez alkatearen lehen betebeharrak bere herriaren ondasunak eta interesak defendatzea da, eta autobideak Billabonako interesei eta ondasunei kalte egiten die», erantzuten zion.

«Ezagutu dugunontzat —segitzen du oharra— Carlos Etxenike enpleua eta erdia izan da, pertsona bezala eta kargu politiko bezala».

Euskal presoan berrogei senitarteko Jerezeko gartzelara manifestatu ziren

DONOSTIA

Euskal preso politikoaren berrogei senitarteko eta lagun Jerez-eko gartzelara aurrean manifestatu ziren, presoaren erreibindikazioak erantzuna izan dezan eskatuz.

«¿Dónde están los derechos humanos de nuestros hijos?» («Non daude gure seme-alaben giza eskubideak?») zioen pankarta baten aurrean egon ziren bi orduz gartzelara hontako ate aurrean, Amnistiaaren Aldeko Batzordeak atzo jakitera eman zuenez.